o A.2 Memoria justificativa del cumplimiento del informe preliminar de impacto ambiental.

o A.3 Memoria justificativa del cumplimiento de los estándares.

– Documento "B. Normativa urbanística".

o B.1. Normas generales (Libro 1).

o B.2. Normas particulares de los ámbitos de ordenación pormenorizada (Libro 2).

o B.3. Normas de protección del patrimonio histórico-arquitectónico y de los espacios naturales (Libro 3).

o B.4. Plan de vigilancia ambiental (Libro 4).

– Documento "C. Planos".

– Documento "D. Estudio de viabilidad económico-financiera y de sostenibilidad económica".

– Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental/Informe de Sostenibilidad Ambiental.

2. La normativa urbanística se compone del documento "B.1. Normas generales (Libro 1)", "B.2. Normas particulares de los ámbitos de ordenación pormenorizada (Libro 2)", "B.3. Normas de protección del patrimonio histórico-arquitectónico y de los espacios naturales (Libro 3)" y "B.4. Plan de vigilancia ambiental (Libro 4)".

3. Los planos de ordenación urbanística del territorio se componen de:

– P-1. Udal barrutiaren kalifikazioa.

o P-1.1. Udal barrutiaren kalifikazioa. Azpiegitura orokorrak eta gainjarritako baldintza gehigarriak.

o P-1.2. Udal barrutiaren kalifikazioa. Lurzoru urbanizaezinaren azpi-mailaketa.

– P-2. Lurzoruaren sailkapena eta antolamenduko eremuak.

– P-3. Zonakatze orokorra hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian.

– P-4. Zonakatze xehatua.

– P-5. Eraikinen ezaugarriak.

– P-6. Garapeneko baldintzak. Hirigintza kudeaketa eta gauzapena.

– P-7. Lerrokadurak eta sestrak.

– P-8. Azpiegiturak eta zerbitzuak.

Hiri antolamendurako plan orokor hau baliabide informatikoen bide egin denez, plano bakoitza hainbat eskalatan editatu daiteke. Hala ere, P-1, P-1.1, P-1.2 eta P-2 planoak lantzeko, 1/5.000 eskalako oinarrizko kartografia erabili da, eta gainontzekoentzat 1/500 eskalakoa, eta kasu bietan Arabako Foru Aldundikoa da.

1.1.1.5. artikulua. Hiri antolamendurako plan orokor honetako agirien interpretazioa

1. Hiri antolamendurako plan orokor hau bere edukia kontuan hartuta eta memorian adierazitako helburuekin eta xedeekin bat etorriz interpretatuko da.

2. Zalantzaren bat edo zehaztasun faltaren bat baldin badago, kolektibitatearen ikuspuntutik onuragarriena den interpretazioa nagusituko da. Nolanahi ere, beti nagusituko dira botere judizialaren eskumeneko funtzioen bitartez egindako interpretazioak.

3. Erraz ebatzi ezin daitekeen interpretazio zalantzaren bat azaltzen denean, artikulu honetako aurreko bi zenbakiei dagokienez, gaiari buruzko txosten tekniko eta juridiko bat eskatuko da, eta, proposatutako irtenbide guztiak aintzat hartu ondoren, udal erakunde eskudunak irtenbide bat hautatuko du, eta hori jarriko da etorkizuneko kasuetan aplikatzeko interpretazio ofizial gisa. Interpretazio horrek eragina badauka hiri antolamendurako plan orokor honen alderdi garrantzitsuren batean, bidezkotzat jotzen den aldaketari ekingo zaio arazoa sortu duten zehaztapenei dagokienez zalantzarik sortzen ez duen idazkera ezartzeko.

4. Hiri antolamendurako plan orokor honetako dokumentazioa osatzen duten elementuetako zehaztapenen artean egon daitezkeen kontraesanak irizpide hauei jarraiki ebatziko dira:

a) Hiri antolamendurako plan orokor honetako edozein zehaztapenen eta lurzoruaren erabilera edo eraikuntza jarduerei zuzenean aplika dakiekeen legezko edo araubidezko edozein xedapenen artean kontraesanen bat dagoenean, azken horretan adierazitakoa nagusituko da.

b) Plano batzuk zerbaitetan bat ez badatoz, eskala xeheenekoan adierazitakoa hartuko da baliozkotzat, memoriatik zalantzarik gabe besterik ondorioztatzen ez bada.

Bat ez datozen planoak eskala berekoak badira, egiturazko antolamenduaren zehaztapenak gailenduko dira, memorian zalantzarik gabe kontrakoa ondorioztatzen ez baldin bada.

c) Planoen eta hirigintzako arauen artean kontraesanik badago, arauetan ezarritakoa izango da nagusi, memoriatik zalantzarik gabe kontrakoa ondorioztatzen ez bada.

d) Kalifikazio orokorreko eta xehatuko zehaztapenak, eta gauzatzeari buruzkoak, beren eremuetan gailendu egingo zaizkie arau orokor hauei.

e) Nolanahi ere, eremuei buruzko neurriei buruz denean, beti nagusituko dira benetako azalerakoak, hau da, hiri antolamendurako plan orokor honetan zehaztutakoari dagokionez eta berau garatzen duten planoetan modu frogagarrian egiaztatutakoak.

Hiri antolamendurako plan orokor honetako arau planoen eduki grafikoari buruz egiten den neurketa edo interpretazioa, “Arabako hirigintza plangintza normalizatzeko sistema” aplikazioa erabiliz gauzatua, edukiaren paperezko euskarrian daukan edizio grafikoan egindako beste edozeinen gainetik nagusituko da.

– P-1. Calificación del término municipal.

o P-1.1. Calificación del término municipal. Infraestructuras generales y condicionantes superpuestos adicionales.

o P-1.2. Calificación del término municipal. Subcategorización del suelo no urbanizable.

– P-2. Clasificación del suelo y ámbitos de ordenación.

– P-3. Zonificación global en suelo urbano y urbanizable.

– P-4. Zonificación pormenorizada.

– P-5. Condiciones de la edificación.

– P-6. Condiciones de desarrollo. Gestión urbanística y ejecución.

– P-7. Alineaciones y rasantes.

– P-8. Infraestructuras y servicios.

Dado que este Plan General de Ordenación Urbana ha sido realizado por métodos informáticos, la edición de cada plano puede ser realizada a escalas diversas. No obstante, para la elaboración de los planos P-1, P-1.1, P-1.2 y P-2 se ha utilizado la cartografía básica de escala 1/5.000 y para el resto la de escala 1/500, en ambos casos de la Diputación Foral de Álava.

Artículo 1.1.1.5. Interpretación de la documentación que integra el presente Plan General de Ordenación Urbana

1. Este Plan General de Ordenación Urbana se interpretará atendiendo a su contenido y con sujeción a los objetivos y finalidades expresados en la memoria.

2. En los casos de duda o imprecisión prevalecerá la interpretación más favorable desde el punto de vista del interés de la colectividad. En cualquier caso, siempre prevalecerán las interpretaciones realizadas a través de las funciones jurisdiccionales del poder judicial.

3. Cuando se suscite una duda de interpretación que no sea fácilmente resoluble, de acuerdo con lo indicado en los dos números anteriores de este artículo, se solicitará un informe técnico y jurídico sobre el tema y, una vez consideradas las diversas alternativas propuestas, el órgano competente municipal adoptará una solución que fijará la interpretación oficial de aplicación en casos sucesivos. Si esta interpretación afecta a aspectos sustanciales del Plan General de Ordenación Urbana, iniciará la oportuna modificación del mismo que establezca una redacción indubitada de las determinaciones causantes del problema.

4. La resolución de las contradicciones que puedan existir entre las determinaciones de los diversos elementos constitutivos de la documentación de este Plan General de Ordenación Urbana se resolverá siguiendo estos criterios:

a) Las contradicciones entre cualquier determinación de este Plan General de Ordenación Urbana y cualquier disposición de carácter legal o reglamentario, cuyo contenido pueda ser de aplicación directa a actos de uso del suelo o de construcción, se saldará a favor de esta última.

b) En el caso de que, eventualmente, no haya correspondencia en la documentación de los diversos planos, será válida la indicación del plano realizado sobre la escala más detallada, salvo que de la memoria se deduzca, sin lugar a dudas, lo contrario.

En el supuesto de tratarse de planos de la misma escala, prevalecerán las determinaciones de la ordenación estructural, salvo que de la memoria se deduzca, sin lugar a dudas, lo contrario.

c) Las contradicciones entre planos y normas urbanísticas se saldarán a favor de estas últimas, salvo que de la memoria se deduzca, sin lugar a dudas, lo contrario.

d) Las determinaciones de la calificación global y la pormenorizada, así como las relativas a la ejecución, prevalecerán en su ámbito sobre las indicaciones de estas normas generales.

e) En cualquier caso, cuando se trate de la medida de los diferentes ámbitos, prevalecerá siempre la superficie real, comprobada fehacientemente sobre la especificada en este Plan General de Ordenación Urbana y en los planos que lo desarrollan.

La medición o interpretación que se realice sobre el contenido gráfico de los planos normativos de este Plan General de Ordenación Urbana, efectuada con la utilización de la aplicación sistema de normalización del planeamiento urbanístico de Álava, tendrá primacía sobre cualquier otra que se realice sobre la edición gráfica en soporte papel de su contenido.

Arestikoa gorabehera, arau orokor hauetako honako artikuluetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan: 1.2.1.3. “Hiri antolamendurako plan orokor honetako zehaztapenen arau lotespenari eta mailari buruzko baldintza orokorrak”, 1.3.2.5. “Kalifikazio orokorreko zehaztapenen arau lotespena eta tolerantziak” eta 1.3.3.4. “Kalifikazio xehatuko zehaztapenetan onartzen diren tolerantziak”.

BIGARREN TITULUA.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

1.2.1. KAPITULUA. BAKARRA

1.2.1.1. artikulua. Hiri antolamenduaren mailak

1. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 50.3.a artikuluan ezarritakoaren arabera, hiri antolamendurako plan orokor honetako hirigintzako antolamenduan maila hauek daude: egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua.

2. Hirigintza arau hauetan, banaka azaltzen dira hiri antolamendu maila bakoitzari dagozkion zehaztapenak.

1.2.1.2. artikulua. Hirigintza antolamendu xehatuko esparruak

1. Antolamendu xehatuko eremuak (edo AXEk) hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren eremua zehazten du, betiere plangintza orokorrean haren antolamendu xehatu uniformea egin bada, edo hala izan behar badu, plangintza orokor hori garatuz, plangintza xehatuaren bidez. Horrez gain, kontzeptu horrek lurzoru urbanizaezinean kokatuta dauden eta Hiri Antolamendurako Plan Orokor honetan definitutako hirigintza plangintzaren bitartez gauzatu behar diren sistema orokorrak ere barne hartzen ditu.

2. Antolamendu xehatuko esparru batean eremu pribatu edota publiko bat edo gehiago egon daitezke.

3. Hiri antolamendurako plan orokor honetan antolamendu xehatuko honako esparruak daude:

IBARRA

IB.01 Hirigune zaharra. Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren eta eremu mugakide berrien BEPB.

IB.02 Tipologia tradizionaleko bizitegi eremua. Ibargoia auzoa (R-14 zena).

IB.03 Garapen txikiko eraikuntza irekiko bizitegi zona. Ibargoia auzoa (R-5 zena).

IB.04 Ipar-ekialdeko garapen txikiko bizitegi eremua (R-6, R-7 – partzialki-, R-16 eta R-17 zirenak).

IB.05 Tipologia tradizionaleko ipar-ekialdeko bizitegi eremua (R-12 zena).

IB.06 Tipologia tradizionaleko ipar-ekialdeko bizitegi eremua (R-11 zena).

IB.07 Garapen txikiko eraikuntza irekiko bizitegi zona (R-3 zena).

IB.08 Mendebaldeko eraikuntza irekiko bizitegi eremua (R-2, R-4, R-18, R-8 eta R-9 zirenak).

IB.09 “Likiniao baserria” tipologia tradizionaleko bizitegi eremua (partzialki R-15 zena).

IB.11 Hegoaldeko garapen txikiko Likiniao bizitegi eremua (R-1, R-15 eta GED zirenak).

IB.12 Ipar-mendebaldeko eraikuntza irekiko Errekazabal bizitegi sektorea.

OTXANDIO

OT.01 I.4 industriagunea (Otxandioko HAPOk araututako esparrua).

OT.02 I.5 industriagunea (Otxandioko HAPOk araututako esparrua).

OT.03 SUI.5 industriagunea (Otxandioko HAPOk araututako esparrua).

OT.04 “Mainondo” bizitegi sektorea (Otxandioko HAPOk araututako esparrua).

4. Kasu berezi gisa, egiturazko antolamenduko esparrua (EAE) hiri antolamendurako plan orokor honek definitzen duen hirigintza plane-

Al margen de lo anterior, deberá tenerse en cuenta lo establecido en los artículos 1.2.1.3. “Condiciones generales sobre el rango y la vinculación normativa de las determinaciones del presente Plan General de Ordenación Urbana”, 1.3.2.5. “Vinculación normativa y tolerancias de las determinaciones de la calificación global” y 1.3.3.4. “Tolerancias admitidas en las determinaciones de la calificación pormenorizada” de estas Normas generales.

TÍTULO SEGUNDO.- DISPOSICIONES GENERALES SOBRE LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA

CAPÍTULO 1.2.1. ÚNICO

Artículo 1.2.1.1. Categorías de la ordenación urbanística

1. Según lo dispuesto en el artículo 50.3.a de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, la ordenación urbanística de este Plan General de Ordenación Urbana se divide en las categorías de ordenación estructural y ordenación pormenorizada.

2. En estas normas urbanísticas son enumeradas las determinaciones que pertenecen a cada categoría de ordenación urbanística.

Artículo 1.2.1.2. Ámbitos de ordenación urbanística pormenorizada

1. El Ámbito de Ordenación Pormenorizada (o, indistintamente, A.O.P.) define el ámbito del suelo urbano y urbanizable que ha sido sometido a una ordenación pormenorizada uniforme por el planeamiento general, o ha de serlo en desarrollo del mismo, a través del planeamiento pormenorizado. También comprende este concepto los sistemas generales sitos en suelo no urbanizable que han de ser ejecutados a través del planeamiento urbanístico definido en el presente Plan General de Ordenación Urbana.

2. Cada ámbito de ordenación pormenorizada puede estar formado por una o varias zonas privadas y/o públicas.

3. En el presente Plan General de Ordenación Urbana existen los siguientes ámbitos de ordenación pormenorizada.

IBARRA

IB.01 Asentamiento antiguo urbano. P.E.R.I. del Centro Histórico de Ibarra de Aramaio y nuevas zonas colindantes.

IB.02 Zona residencial de tipología tradicional. Barrio de Ibargoia (antigua R-14).

IB.03 Zona residencial de edificación abierta de bajo desarrollo. Barrio de Ibargoia (antigua R-5).

IB.04 Zona residencial de bajo desarrollo Noreste (antiguas R-6, parcialmente R-7, R-16 y R-17).

IB.05 Zona residencial Noreste de tipología tradicional (antigua R-12).

IB.06 Zona residencial Noreste de tipología tradicional (antigua R-11).

IB.07 Zona residencial de edificación abierta de bajo desarrollo (antigua R-3).

IB.08 Zona residencial de edificación abierta Oeste (antiguas R-2, R-4, R-18, R-8 y R-9).

IB.09 Zona residencial de tipología tradicional “Caserio Likiniao” (parcialmente antigua R-15).

IB.11 Área residencial Likiniao de bajo desarrollo Sur (antiguas R-1, R-15 y GED).

IB.12 Sector residencial Errekazabal de edificación abierta Noroeste.

OTXANDIO

OT.01 Zona industrial I.4 (ámbito regulado por el PGOU de Otxandio).

OT.02 Zona industrial I.5 (ámbito regulado por el PGOU de Otxandio).

OT.03 Sector industrial S.U.I.-5 (ámbito regulado por el PGOU de Otxandio).

OT.04 Sector residencial “Mainondo” (ámbito regulado por el PGOU de Otxandio).

4. Como caso especial, el Ámbito de Intervención Estructural (o, indistintamente, A.I.E.) define el ámbito del suelo no urbanizable

amenduaren bitartez gauzatuko ez diren sistema orokorrak dauden lurzoru urbanizaezineko esparrua da.

Komunikazio sistema orokorrari dagozkion honako egiturazko antolamendu esparruak definitu dira:

– Tren azpiegiturak: Abiadura Handiko Trena (AHT), euskal Y.

1.2.1.3. artikulua. Hiri antolamendurako plan orokor honetako zehaztapenen arau lotespenari eta mailari buruzko baldintza orokorrak

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 58. artikulua garatzeko irizpide hauek ezarri dira:

1. Egiturazko hirigintza antolamenduaren zehaztapenek planeamendu orokorraren maila dute. Arau orokor hauetako 1.3.2.5. artikuluan ("Kalifikazio orokorraren zehaztapenen arauekiko lotura eta tolerantziak") adierazitako salbuespenekin eta tolerantziekin, horien aldaketek hiri antolamendurako plan orokor hau aldatuko dute eta hirigintzako legeriak horretarako ezarritako prozedurari jarraiki izapidetu behar da.

Zehaztapen hauek izango dute egiturazko antolamenduaren maila:

a) Dokumentazio grafikoko zehaztapenak:

a.1) P-1, P-1.1, P-1.2 eta P-3 planoetan jasotako zonakatzea eta kalifikazio orokorra.

a.2) P-2 planoko lurzoruaren sailkapena (hiri lurzoruan, urbanizagarri sektorizatuan, urbanizagarri sektorizatugabean eta urbanizaezinean).

Halaber, egiturazko antolamendukoa da gauzatze eremuak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 53.1.f artikuluan aipatutakoak) eta horiei atxikitako edo horietan sartutako sistemak dauden hiri lurzoru finkatu gabearen kategorizazioa.

a.3) P-2 planoan dauden antolamendu xehatuko esparruen mugapena, salbu eta hiri lurzoruko esparru horiek plan bereziak egiteko aldatzen direnean, baldin eta planen helburua zuzkidura publikoak gehitzea bada, hirigintzako eraikigarritasuna eta eraikigarritasun haztatua handitu gabe.

a.4) P-5 planoan ageri diren interes kulturaleko ondasun higiezin kalifikatuak eta inbentariatuak seinalatzea.

a.5) Goiko a.2 azpipuntuan aipatutako gauzatze esparruen mugapena, P-6 planoan ageri dena.

a.6) Antolamenduko zenbait planoren gainean idatzitako oharren bitartez berariaz definitutako antolamendu zuzentzaileari buruzko zehaztapenak.

b) Idatzizko dokumentazioko zehaztapenak:

b.1) "B.1.Arau orokorrak (1. liburua)" agiria, bertako salbuespenekin.

b.2.) Antolamendu xehatuko zehaztapenak, berariaz arau maila horrekin definitzen badira antolamendu xehatuko esparru bakoitzaren arau berezian: "B.2. Antolamendu xehatuko esparruen arau bereziak (2. liburua)".

2. Planeamendu orokorraren maila izango dute antolamendu xehatuko esparru bakoitzaren arau berezian arau maila horrekin berariaz zehaztutako antolamendu xehatuaren zehaztapen bereziek, eta, beraz, aldatu ahal izateko, hiri antolamendurako plan orokor honetan ere aldaketa bera egin beharko da, hain zuzen ere "B.2. Antolamendu xehatuko esparruen arau bereziak (2. liburua)" agirian.

Arau orokor hauetako 1.3.3.4. artikuluan -"Kalifikazio xehatuaren zehaztapenetan onartutako tolerantziak"- adierazitako salbuespenekin, kalifikazio xehatuaren gainontzeko zehaztapenek plangintza xehatuaren berezko maila izango dute eta horien gauzatzea eta aldatzea, lurzoru motaren arabera, plan orokor honen bitartez, plan berezi baten bitartez edo plan partzial baten bidez burutuko da.

1.2.1.4. artikulua. Hiri antolamendurako plan orokor honen aldaketak

1. 1.3.2.5 –"Kalifikazio orokorraren zehaztapenen arauekiko lotura eta tolerantziak"- eta 1.3.3.4. -"Kalifikazio xehatuaren zehaztapenetan

integrado por los sistemas generales que no serán ejecutados a través del planeamiento urbanístico que define el presente Plan General de Ordenación Urbana.

Se definen los siguientes ámbitos de intervención estructural referidos al sistema general de comunicaciones:

– Infraestructuras ferroviarias: Tren de Alta Velocidad (TAV), Y vasca.

Artículo 1.2.1.3. Condiciones generales sobre el rango y la vinculación normativa de las determinaciones del presente Plan General de Ordenación Urbana

En desarrollo del artículo 58 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, se establecen los siguientes criterios:

1. Las determinaciones de ordenación urbanística estructural tienen rango de planeamiento general. Con las salvedades y tolerancias indicadas en el artículo 1.3.2.5. "Vinculación normativa y tolerancias de las determinaciones de la calificación global" de estas Normas generales, sus modificaciones supondrán la del presente Plan General de Ordenación Urbana, debiéndose tramitar según el procedimiento establecido al efecto por la legislación urbanística.

En concreto, tienen rango de ordenación estructural las siguientes determinaciones:

a) De la documentación gráfica:

a.1) La zonificación y calificación global contenidas en los planos P-1, P-1.1, P-1.2 y P-3.

a.2) La clasificación del suelo (en suelo urbano, urbanizable sectorizado, urbanizable no sectorizado y no urbanizable) del plano P-2.

Asimismo, tiene rango de ordenación estructural la categorización del suelo urbano no consolidado que contenga ámbitos de ejecución (citados en el artículo 53.1.f de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo) con sistemas generales adscritos o incluidos en ellos.

a.3) La delimitación de los ámbitos de ordenación pormenorizada contenida en el plano P-2, excepción hecha de la modificación de tales ámbitos del suelo urbano para redactar Planes Especiales cuando vayan dirigidos a incrementar las dotaciones públicas sin aumentar la edificabilidad urbanística ni la ponderada.

a.4) El señalamiento de los bienes inmuebles de interés cultural calificados e inventariados, contenidos en el plano P-5.

a.5) La delimitación de los ámbitos de ejecución, mencionados en el subpunto a.2, incorporada al plano P-6.

a.6) Las determinaciones de ordenación directiva definidas expresamente mediante notas escritas sobre los diferentes planos de ordenación.

b) De la documentación escrita:

b.1) El presente documento "B.1. Normas generales (Libro 1)", con las excepciones contenidas en el mismo.

b.2) Las determinaciones de ordenación pormenorizada definidas expresamente con ese rango normativo en la Norma particular de cada ámbito de ordenación pormenorizada, en el documento "B.2. Normas particulares de los ámbitos de ordenación pormenorizada (Libro 2)".

2. Tendrán el rango propio del planeamiento general y, por lo tango su alteración exigirá la formulación de la correspondiente modificación del presente Plan General de Ordenación Urbana, las determinaciones particulares de ordenación pormenorizada definidas expresamente con ese rango normativo en la Norma particular de cada ámbito de ordenación pormenorizada, en el documento "B.2. Normas particulares de los ámbitos de ordenación pormenorizada (Libro 2)".

Con las excepciones y salvedades indicadas en el artículo 1.3.3.4. "Tolerancias admitidas en las determinaciones de la calificación pormenorizada" de estas Normas generales, el resto de las determinaciones de la calificación pormenorizada tendrán el rango propio del planeamiento pormenorizado, y su formulación y modificación se realizará, según cada clase de suelo, por medio de este Plan General de Ordenación Urbana, un Plan Especial o un Plan Parcial.

Artículo 1.2.1.4. Modificaciones del presente Plan General de Ordenación Urbana

1. Con las salvedades indicadas en los artículos 1.3.2.5. "Vinculación normativa y tolerancias de las determinaciones de la

onartutako tolerantziak"- artikuluetan adierazitako salbuespenekin, hiri antolamendurako plan orokor honen aldaketa da haren zehaztapenak berraztertzeko egintza oro, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera berrikuspena ez bada.

Aldaketa egiteko plan egokia hautatzeko aurreko artikuluan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

2. Izapidetzean azaltzen den edozein aldaketa interes publikoaren ikuspuntutik justifikatu beharko da.

3. Aldaketa guztiak egongo dira justifikatzen dituzten arrazoiekin lotuta, eta espedientean ezingo da erantsi aipatutako arrazoiarekin lotuta ez dagoen edo egin diren deskripzio eta justifikazioetan espresuki adierazi ez den beste aldaketarik.

1.2.1.5. artikulua. Hiri antolamendurako plan orokor honen berrikuspena

1. Hiri antolamendurako plan orokor hau berrikustea (osorik edo zati bat) hauxe da: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko presazko neurrien gaineko ekainaren 3ko 105/08 Dekretuko 33. artikuluan deskribatutako egiturazko hirigintza antolamendua berraztertzea.

2. Beste alde batetik, hiri antolamendurako plan orokor hau berrikusi beharra dagoen seinale izango dira inguruabar hauek:

a) Hiri antolamendurako plan orokor honetan ezarritako bizitegietarako eta industriarako ahalmenaren ehuneko berrogeita hamar (50) agortuta egotea.

b) Egiturazko antolamendua modu orokorrean desitxuratuko duen horniduraren bat ezartzeko beharra izatea.

c) Biztanleria edo horren hazkunde indizea modu garrantzitsuan aldatzea, aurrez ikusten zenarekin alderatuta.

d) Berrikuspena barne hartzen duen lurralde planeamendua onartzea.

e) Udalaren hiri politikaren orientazioa aldatzea.

HIRUGARREN TITULUA.- LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

1.3.1. KAPITULUA.- LURZORUAREN ERABILERA

1. Atala.- Alderdi orokorrak

1.3.1.1. artikulua. Lurzoruaren erabileraren definizioa

1. Lurzoruaren erabilerak lurraldeko gune jakin baten (eraikia egonda zein ez) hirigintzako kalifikazioa dela eta onartzen diren jardueren zehaztapen espaziala dira.

2. Kontzeptu horrek hirigintzan baino ez dauka balioa. Horregatik, lurzoruaren araubideari eta hiri antolamenduari buruz indarrean dagoen legeriak planeamenduari ematen dizkion ahalmenen arabera zehazten da.

1.3.1.2. artikulua. Erabilera nagusia, erabilera osagarria eta zerbitzu erabilera. Erabilera asimilatua

1. Hirigintzako jarduera baten garapenak espazio baten barruan funtzio edo antolakuntzari dagokionez elkarrekin lotuta dauden erabilera batzuk biltzen ditu. Kasu horietan jardueraren funtsezko helburua den erabilera erabilera nagusia da; erabilera hau da espazioko bereizgarria.

2. Beste alde batetik, erabilera osagarriak dira nagusiari lotuta egonik hura behar bezala burutzeko ezinbestekoak direnak (edo komenigarriak, behintzat). Erabilera jakin bat, kasuaren eta kokapenaren arabera, batzuetan erabilera osagarri gisa eta beste batzuetan erabilera nagusi gisa ari daiteke.

3. Erabileraren kontzeptuaren barruan, nagusia zein laguntzailea izan, erabilerak hartzen dituzten instalazio edota eraikuntzek egokiro funtzionatzeko ezinbestekoak diren zerbitzu jarduera guztiak sartzen dira. Zerbitzu erabilerak dira eraikuntzetako instalazioak, esate baterako: zaborra biltzeko lokalak, igogailuko makineria, erregaien biltegiak eta galdara gelak, etab.

4. Erabilera nagusi bati lotutako erabilera asimilatuak dira beren ezarpen baldintza eta lurzati berean edo ondoko lurzatietan dauden lokaletan gauzatutako erabileren gaineko eraginak erreferentziazko erabileren antzekoak direnak, eta ondorioz, sarritan, erabilera nagu-

calificación global" y 1.3.3.4. "Tolerancias admitidas en las determinaciones de la calificación pormenorizada", se entiende por modificación del presente Plan General de Ordenación Urbana toda reconsideración de sus determinaciones que no constituya supuesto de revisión conforme a lo previsto en el artículo siguiente.

A efectos de la elección del plan competente para realizar aquella modificación, se tendrán en cuenta los criterios establecidos en el artículo anterior.

2. Cualquier modificación que se presente a su tramitación se deberá justificar desde el punto de vista del interés público.

3. Toda modificación guardará relación con el motivo que la justifica, no pudiéndose incluir en el expediente otras alteraciones no relacionadas con dicho motivo o que no se mencionen de forma expresa en las descripciones y justificaciones realizadas.

Artículo 1.2.1.5. Revisión del presente Plan General de Ordenación Urbana

1. Se entiende por revisión, total o parcial, de este Plan General de Ordenación Urbana la reconsideración de la ordenación urbanística estructural descrita en el artículo 33 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo.

2. De otra parte, constituirán circunstancias que aconsejan la revisión de este Plan General de Ordenación urbana las siguientes:

a) El agotamiento del cincuenta por ciento (50 por ciento) de la capacidad residencial o industrial totales previstas por este Plan General de Ordenación Urbana.

b) La necesidad de alguna intervención dotacional que suponga una distorsión generalizada de la ordenación estructural.

c) La modificación significativa respecto a las previsiones de la población o de su índice de crecimiento.

d) La aprobación de un planeamiento territorial que implique la revisión.

e) El cambio de orientación de la política urbana municipal.

TÍTULO TERCERO.- CALIFICACIÓN DEL SUELO

CAPÍTULO 1.3.1. USO DEL SUELO

Sección 1ª.- Generalidades

Artículo 1.3.1.1. Definición de uso del suelo

1. Los usos del suelo son la concreción espacial de las actividades que se admiten por la calificación urbanística en un determinado espacio del territorio, edificado o no.

2. Este concepto tiene un valor estrictamente urbanístico por lo que se establece a tenor de las facultades que otorga al planeamiento la legislación sobre régimen del suelo y ordenación urbana

.

Artículo 1.3.1.2. Uso principal, uso auxiliar y uso servidor. Uso asimilado

1. El desarrollo de una actividad urbanística en un espacio engloba a varios usos que están funcional u organizativamente ligados entre sí. En estos casos, se denomina uso principal al concreto que constituye el objeto fundamental de la actividad y que lo caracteriza como tal uso.

2. A su vez, se denomina uso auxiliar a aquellos otros usos vinculados que son imprescindibles o, al menos, convenientes para el correcto funcionamiento del principal. Un determinado uso puede actuar, según los casos y la localización, una veces como uso auxiliar u otras como uso principal.

3. Dentro del concepto de uso, sea principal o auxiliar, se incluyen todas las actividades de servicio que resultan imprescindibles para el correcto funcionamiento de las instalaciones y/o los edificios que albergan los usos. Son usos servidores las denominadas instalaciones de los edificios, tales como locales de recogida de basuras, maquinaria de ascensor, depósitos de combustibles y cuartos de calderas, etc.

4. Son usos asimilados a un uso principal determinado, aquéllos cuyas condiciones de implantación y efectos sobre los usos ejercidos en los locales existentes en la misma parcela o colindantes son semejantes a los usos de referencia, por lo que, habitualmente, se

siaren antzeko baldintzetan ezartzen dira. Erabilera bat erabilera nagusi batekin asimilatzeko baldintza hauetako bat bete behar da:

a) Erabileren edukia arautzen duten ondorengo artikuluetan edo azpizonetako eraikuntza eta erabilera baldintza berariazkoetan hala adierazita egotea.

b) Horretarako bideratutako hirigintzako udal ordenantza batean jasota egotea.

c) Udalak erabakita egotea, txosten teknikoa egin ondoren; txostenean zalantzarik gabe frogatu behar da puntu honetako lehenengo paragrafoan aipatzen diren baldintzak betetzen direla. Erabaki hori udalerri osoan aplikatuko da, planeamenduak zona eta azpizona bakoitzerako ezarritako helburuen arabera asimilazio desberdinak ezartzeko eragozpen izan gabe; ondorioz, bide hau ezingo da inoiz erabili arazo partikularrak konpontzeko.

1.3.1.3. artikulua. Hirigintzako arau hauetan ageri ez diren erabilerak

1. Ondoren azalduko den sistematizazioa, bai eta beraren garapena ere, definizio irekia eta ez baztertzailea da; beraz, Udalak hirigintzako eraginak eta aipatutako beste erabilera batzuetakoen arteko analogiagatik zehaztu ahal izango ditu bertan berariaz araututa ez dauden erabilerak.

2. Erreferentzia falta dela eta asimilazio hori posiblea ez denean, Udalak erabileren sailkapena aldatuko du eta planeamendu orokorraren aldaketa gisa izapidetuko du.

2. Atala.- Lurraren erabileren sailkapena

1.3.1.4. artikulua. Lurzoruaren erabileren sailkapena

1. Lursailetan eta eraikuntza eta instalazioetan lurzoruen erabileren kokapena arautzeko helburuarekin, lurzoruaren erabilerak mota hauetan sailka daitezke:

a) Lurraldean kokatu ahal diren ala ez kontuan hartuta.

a.1) Baimendutako erabilerak.

a.2) Galarazitako erabilerak.

b) Jabetza araubidearen arabera.

b.1) Erabilera publikoak.

b.2.) Erabilera pribatuak.

c) Erabilerak eraikuntza edo instalazioren batekin lurra okupatzen duen ala ez kontuan hartuta, hori erabileraren oinarrizko ezaugarria baita.

c.1) Eraikin edo instalazioetako erabilerak: eraikuntzako erabilerak.

c.2) Eraikinik ez instalaziorik ez dagoen erabilerak: eraikuntzakoak ez diren erabilerak.

d) Jardueren izaeraren arabera, erabilerak mailatan eta azpimailatan antolatzen eta ordenatzen dira. Lehenengo maila:

d.1) Etxebizitza.

d.2) Industria.

d.3) Hirugarren sektorea.

d.4) Gizarte ekipamendua.

d.5) Komunikazioak eta garraioak.

d.6) Aire libreko aisia eta jolasa.

d.7) Zerbitzuetarako azpiegiturak.

d.8) Landa/natura erabilerak.

Erabilera horiek azpimailetan zatitu dira hurrengo ataletan.

1.3.1.5. artikulua. Baimendutako erabilera, berezko erabilera, lehenetsitako erabilera eta erabilera bateragarria. Galarazitako erabilera

1. Baimendutako erabilera da, erabilera nagusi gisa, zona bakoitzeko kalifikazio orokorreko erabilera baimenduen zerrendan eta azpizonetako kalifikazio xehatuan agertzen dena.

Erabilera osagarriak, zerbitzu erabilerak eta erabilera asimilatuak ere baimendutzat joko dira (ez dago zertan zehaztu).

2. Esparru edo eraikin batean baimendutako erabileren barruan berezko erabilera deritzo planeamenduan onartutako sestraren gaineko eraikigarritasunaren zatirik handiena agortzen duelako edo planea-

implantan en condiciones similares a las del principal. Para que un uso adquiera la consideración de uso asimilado a un uso principal deberá cumplir alguno de estos requisitos:

a) Estar expresamente señalado como tal en los artículos siguientes, que regulan el contenido de los usos o en las condiciones especificas de edificación y uso de las subzonas.

b) Estar recogido en una ordenanza urbanística municipal destinada al efecto.

c) Ser acordado por el Ayuntamiento, previo informe técnico en el que se demuestre, de manera indubitada, que se dan las circunstancias señaladas en el primer párrafo de este punto. Este acuerdo será de aplicación en todo el municipio, sin perjuicio de que puedan establecerse diferentes asimilaciones en las diversas zonas y subzonas en función de los objetivos establecidos por el planeamiento; en consecuencia, nunca podrá utilizarse esta vía para solucionar situaciones particulares.

Artículo 1.3.1.3. Usos no previstos en la presente normativa urbanística

1. La sistematización reseñada posteriormente, así como el desarrollo que de la misma se efectúa, se entenderá como una definición abierta y no excluyente, por lo que el Ayuntamiento podrá explicitar los usos no previstos en aquélla por la analogía de sus efectos urbanísticos con los de otros usos reseñados.

2. Cuando tal equiparación no sea posible por ausencia de referencia, el Ayuntamiento reformará la clasificación de los usos, tramitándola como modificación de planeamiento general.

Sección 2ª.- Clasificación de los usos del suelo

Artículo 1.3.1.4. Clasificación de los usos del suelo

1. A efectos de regular la ubicación de los usos del suelo en los terrenos y en las edificaciones e instalaciones, los diversos usos del suelo se clasifican en los siguientes tipos:

a) Según su posibilidad de ubicación en el territorio.

a.1) Usos autorizados.

a.2) Usos prohibidos.

b) Según el régimen de propiedad.

b.1) Usos públicos.

b.2) Usos privados.

c) Según la característica básica de un uso de ocupar o no el terreno con edificación o instalación.

c.1) Usos sustentados en edificación o instalación: usos constructivos.

c.2) Usos no sustentados en edificación o instalación: usos no constructivos.

d) Según su naturaleza, los usos se disponen y ordenan desagregándose en niveles y subniveles. El primer nivel es el siguiente:

d.1) Vivienda.

d.2) Industrial.

d.3) Terciario.

d.4) Equipamiento comunitario.

d.5) Comunicaciones y transportes.

d.6) Recreo y esparcimiento al aire libre.

d.7) Infraestructuras de servicios.

d.8) Usos rurales/naturales.

En las secciones siguientes, los anteriores usos se desagregan en los subniveles pertinentes.

Artículo 1.3.1.5. Uso autorizado, uso característico, uso priorizado y uso compatible. Uso prohibido

1. Uso autorizado es aquél que, a título de uso principal, figura incluido en la lista de usos permitidos de la calificación global de cada una de las zonas y en la de la pormenorizada de las subzonas.

Sin necesidad de especificación, se consideran también autorizados los usos auxiliares, los servidores y los asimilados.

2. Dentro de los usos autorizados en un ámbito espacial o en un edificio, se denomina uso característico al que caracteriza al ámbito por agotar la mayor fracción de la edificabilidad permitida por el

menduan ezarritako lehentasun hurrenkeran lehenengoa delako esparruaren bereizgarri den erabilerari.

Plangintzak berezko erabilera modu orokorrean edo bereizi gabe adierazten baldin badu, berezko erabileratzat hartuko dira hark exijitzen dituen betekizunak betetzen dituzten azpiko azpizonen erabilera zehatzak.

3. Esparru bateko (zona, azpizona, lurzatia edo eraikina) arautegiak ez badu finkatzen berezko erabileratzat baimendutako erabileraren bat, lehenetsitako erabilerak ezarri ahal izango ditu (batzuk edo bat bakarrik). Erabilera horiek esparrua ondo antolatzeko komenigarritzat jotzen direnak izango dira; horien ezarpena hirigintzako edota eraikuntzako parametro onuragarriagoak emanda sustatuko da.

4. Planeamenduak lurralde esparru zehatz batean baimentzen dituen gainontzeko erabilerak bateragarriak dira.

5. Oro har, galarazitako erabilerak dira segurtasun, osasungarritasun eta lasaitasunaren alorretan, kultura ondarea eta natura ingurunearen babeserako, uren eta komunikabideen alorretan emandako xedapen orokoren eta kalifikazioen zehaztapenek debekatzen dituztenak.

Zehazki, erabilera debekatuak dira kalifikazioak onartzen dituen erabileren zerrendetan espresuki aipatzen ez direnak, arau orokor hauetako 1.3.1.3. –"Hirigintzako arau hauetan ageri ez diren erabilerak"- eta 1.5.2.2.-"Erabileren ezarpenari dagozkion baldintza komun orokorrak"- artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe.

1.3.1.6. artikulua. Erabilera publikoak

1. Erabilera publikoak dira bizitza sozialaren ondorioz biztanleriak dauzkan beharrak asetzen dituztenak; administrazio organoek egiten dituzte sistema orokorretako zonetan eta tokiko sistemetako azpizonetan dauden lurretan edota eraikinetan eta instalazioetan.

2. Aurrean azaldutakoarekin bat datozen erabilerak administrazio kontzesio baten bidez ematen badira, hala ere, publikoak izango dira ondorio guztietarako.

3. Derrigorrez eta dohainik lortutako tokiko zuzkiduren erabilerak baimendutzat joko dira beti, eta ez da beharrezkoa izango hori kalifikazioan berariaz adieraztea.

1.3.1.7. artikulua. Erabilera pribatuak edo irabazteko erabilerak

1. Aurreko artikuluko erabilera publikoen definizioan jasota ez dauden erabilera guztiak erabilera pribatutzat edo irabazteko erabileratzat hartuko dira; hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian badaude, haztatutako eraikigarritasunean sartuko dira.

2. Halaber, planeamenduaren arabera sistema orokorretakoak ez lokaletakoak izan behar ez diren lurretan Administrazio Publikoak egiten dituen jarduerekin lotutako erabilerak ere erabilera pribatuak izango dira.

3. Atala.- Etxebizitza erabileraren edukia

1.3.1.8. artikulua. Definizioa eta motak

1. Etxebizitza erabilera hauxe da: familiaren ohiko jokaera duen taldea eratzen duten pertsona batzuk bizi diren egoitza iraunkorrak (pertsona horiek ahaideak izan daitezke edo ez).

2. Etxebizitza erabileraren barruan azpimaila edo modalitate hauek daude:

a) Babes ofizialeko etxebizitza, araubide orokorrekoa.

b) Babes ofizialeko etxebizitza, araubide berezikoa.

c) Babes ofizialeko etxebizitza, araubide tasatukoa.

d) Etxebizitza librea.

3. Gainera, aurreko erabilerak ondoko hauetan bereizten dira eraikinaren motaren arabera:

a) A mota: familia bakarreko eraikinean dagoen etxebizitza edo familia bakarreko etxebizitza.

b) B mota: bi (2) etxebizitzako eraikinean dagoen etxebizitza edo bi familiako etxebizitza.

i) B.1 mota: familia bakarrekoa.

ii) B.2 mota: familia anitzekoa.

planeamiento sobre rasante, o por tener prioridad en el orden de preferencias establecido por el planeamiento.

En el supuesto de que el planeamiento señale el uso característico de forma genérica o sin desagregar, los usos concretos de los subniveles inferiores que cumplan los requisitos exigidos por aquél tendrán todos ellos el carácter de uso característico.

3. Cuando la normativa de un ámbito (zona, subzona, parcela o edificio) renuncie a fijar alguno de los usos autorizados como uso característico, podrá establecer uno o varios usos priorizados, que serán aquéllos que el planeamiento considera los más convenientes para lograr la ordenación idónea del ámbito y cuya implantación se incentiva asignándoles parámetros urbanísticos y/o edificatorios más favorables.

4. Son usos compatibles todos los demás usos autorizados por el planeamiento en un ámbito espacial determinado.

5. Genéricamente, son usos prohibidos aquéllos que lo estén por las determinaciones de la calificación y las disposiciones generales promulgadas en materia de seguridad, salubridad y tranquilidad, protección del patrimonio cultural y del medio natural, de las aguas y de las vías de comunicación.

En concreto, son usos prohibidos aquéllos que no estén expresamente relacionados en las listas de usos permitidos por la calificación, sin perjuicio de lo establecido en los artículos 1.3.1.3. "Usos no previstos en la presente normativa urbanística" y 1.5.2.2. "Condiciones generales comunes referentes a la implantación de los usos" de estas normas generales.

Artículo 1.3.1.6. Usos públicos

1. Son usos públicos los referentes a las actividades destinadas a cubrir las necesidades de la población derivada de la vida social, desarrollados por órganos de la administración en terrenos y/o edificios e instalaciones que se sitúen en las zonas destinadas a sistemas generales y en las subzonas de sistemas locales.

2. Los usos que, participando de las características anteriores, hayan sido objeto de concesión administrativa, se considerarán igualmente públicos a todos los efectos.

3. Los usos de las dotaciones públicas locales, obtenidas obligatoria y gratuitamente, siempre se considerarán permitidos sin la necesidad de su señalamiento expreso por la calificación.

Artículo 1.3.1.7. Usos privados o lucrativos

1. Todos los usos que no estén contenidos en la definición de usos públicos del artículo anterior tienen la consideración de usos privados o lucrativos, y formarán parte de la edificabilidad ponderada cuando se sitúen en suelo urbano y urbanizable.

2. También tienen la consideración de usos privados los usos de la Administración Pública referentes a las actividades desarrolladas por aquélla en terrenos que, según el planeamiento, no han de constituir sistemas generales o locales.

Sección 3ª.- Contenido del uso de vivienda

Artículo 1.3.1.8. Definición y clases

1. Se entiende por uso de vivienda la residencia permanente destinada al alojamiento de personas que configuran un núcleo con los comportamientos habituales de las familias, tengan o no, razón de parentesco.

2. El nivel del uso de vivienda se desagrega en los siguientes subniveles o modalidades:

a) Vivienda de protección oficial de régimen general.

b) Vivienda de protección oficial de régimen especial.

c) Vivienda de protección pública de régimen tasado.

d) Vivienda libre.

3. A su vez, los anteriores usos se desagregan, en función de la tipología edificatoria, en los siguientes:

a) Tipo A: vivienda en edificio unifamiliar o vivienda unifamiliar.

b) Tipo B: vivienda en edificio de dos (2) viviendas o vivienda bifamiliar.

i) Tipo B.1: unifamiliar.

ii) Tipo B.2: plurifamiliar.

c) C mota: familia bakarreko bi (2) etxebizitza edo gehiago elkarri atxikita dituen eraikineko etxebizitza edo familia bakarreko etxebizitza atxikia.

i) C.1 mota: ilaran kokatutako familia bakarreko etxebizitza atxikia.

ii) C.2 mota: familia bakarreko etxebizitza atxiki trinkoa edo erpin komun bat duena.

d) D mota: familia anitzeko araubideko bi (2) etxebizitza baino gehiago dituen eraikinean kokatutako etxebizitza edo familia anitzeko etxebizitza.

i) D.1 mota: familia anitzeko etxebizitza dentsitate txikiko eraikin trinko irekian.

ii) D.2 mota: familia anitzeko etxebizitza familia anitzeko eraikin orokorrean.

Ondoko orrialdean aurrean deskribatutako eraikin moten eskema orokorra ikus daiteke.

c) Tipo C: vivienda en edificio de más de dos (2) viviendas unifamiliares adosadas o vivienda unifamiliar adosada.

i) Tipo C.1: unifamiliar adosada en hilera.

ii) Tipo C.2: unifamiliar adosada compacta o con un vértice común.

d) Tipo D: vivienda en edificio de más de dos (2) viviendas en régimen plurifamiliar o vivienda plurifamiliar.

i) Tipo D.1: plurifamiliar en edificación compacta abierta de bajo desarrollo.

ii) Tipo D.2: plurifamiliar en edificación plurifamiliar general.

En la siguiente página puede observarse un esquema general de los tipos edificatorios arriba descritos.

ESKEMA HONETAN ESTALKIAREN FORMALIZAZIOA ORIENTABIDEKOA DA ETA EZ DA LOTESLEA

ESKEMA HONETAN SOLAIRUAREN FORMALIZAZIOA ORIENTABIDEKOA DA ETA EZ DA LOTESLEA

ESKEMA HONETAN ERAIKINAREN PROFILA ORIENTABIDEKOA DA ETA EZ DA LOTESLEA

LA FORMALIZACIÓN DE LA CUBIERTA EN ESTE ESQUEMA ES ORIENTATIVO Y NO VINCULANTE

LA FORMALIZACIÓN DE LA PLANTA EN ESTE ESQUEMA ES ORIENTATIVO Y NO VINCULANTE

EL PERFIL DE LA EDIFICACIÓN EN ESTE ESQUEMA ES ORIENTATIVO Y NO VINCULANTE

4. Familia bakarreko eraikinean dagoen etxebizitza edo familia bakarreko etxebizitza (A mota) familia unitate bakar baten egoitza den eraikin bakar batean (1) kokatutakoa da.

i) Bi modalitate daude:

1) Eraikin bakartu bat (1) hartzen duen etxebizitza edo familia bakarreko etxebizitza bakartua.

2) Kasu berezi gisa, binaka elkartutako edo lurzati mugakideetako mugei atxikitako eraikin bat (1) hartzen duen etxebizitza.

ii) Etxebizitzak honela kokatu daitezke lurzatian:

1) Eraikin bakoitza lurzati lokabe batean.

2) Hainbat eraikin lurzati bakar batean, jabetza horizontalaren araubidean.

5. Bi (2) etxebizitzako eraikinean dagoen etxebizitza edo bi familiako etxebizitza (B mota) bi (2) familia unitatearen egoitza den edo bi (2) etxebizitza dauden eraikin bakar batean (1) kokatutakoa da.

Bi mota daude:

a) B.1 mota: familia bakarreko etxebizitza; honelakoetan etxebizitzak horizontalean banatzen dira eraikinaren (1) barruan (etxebizitzako gelak ezin dira egon plano bertikal berean).

Eraikina trinkoa izan behar da; etxebizitza bien bateraketa elementu edo gorputz bolumetriko batek baino gehiagok osatuta egonez gero, gorputz nagusiak edo bolumen handiena daukatenak atxikiz egingo da eta horiek osatuko dute fatxada jarraitua. Familia bakarreko etxebizitza bakartuko bi (2) eraikin beren gorputz txikiagoetatik (altueran edota zabaleran) elkartzearen emaitzako irtenbide arkitektonikoa ez da inoiz familia bakarreko binakako etxebizitzatzat joko.

i. Bi modalitate daude:

1) Eraikin bakartu batean (1) dagoen etxebizitza.

2) Kasu berezi gisa, binakako eraikin batean (1) edo lurzati mugakideetako mugei atxikitako eraikinean dagoen etxebizitza.

ii. Etxebizitzak honela koka daitezke lurzatian:

1) Etxebizitza bakoitza lurzati lokabe batean.

2) Eraikin bakoitza lurzati lokabe batean.

3) Hainbat eraikin lurzati bakar batean, jabetza horizontalaren araubidean.

b) Familia anitzeko etxebizitza (B.2 mota) artikulu honetako 7. puntuan definitutako familia anitzeko etxebizitzaren kontzeptu orokorrari dagokio. Etxebizitzak bertikalean elkartuz eratzen da eraikina; beraz, atari bat izan beharko du solairuetako baten arrasean, eta, oro har, eraikinean bertan dauden elementu komunetatik sartuko da etxebizitza unitate bakoitzera.

i. Bi modalitate daude:

1) Eraikin bakartu batean (1) dagoen etxebizitza.

2) Kasu berezi gisa, binakako eraikin batean (1) edo lurzati mugakideetako mugei atxikitako eraikinean dagoen etxebizitza.

ii. Etxebizitzak honela koka daitezke lurzatian:

1) Eraikin bakoitza lurzati batean.

2) Hainbat eraikin lurzati bakar batean, jabetza horizontalaren araubidean.

6. C mota: familia bakarreko bi (2) etxebizitza baino gehiago elkarri atxikita eraikin batean edo familia bakarreko etxebizitza atxikia; familia bakarreko bi (2) etxebizitza baino gehiago elkartuta dauden eraikina.

Etxebizitzak horizontalean atxikitzen zaizkio elkarri, bakoitzak bere ezkaratza daukala. Etxebizitzetako gelak ezin dira egon plano bertikal berean. Halaber, eraikinari aurreko 5. puntuko a) idatz-zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren konposizio arkitektonikorako baldintzak aplikatuko zaizkio.

Bi mota daude:

a) C.1 mota: ilaran atxikitako familia bakarreko etxebizitza; etxebizitzak bata bestearen ondoan atxikitzen zaizkio elkarri, ondoz ondokoak ez diren mehelin hormen bitartez, eta luzetara garatutako eraikina eratzen dute.

4. La vivienda en edificio unifamiliar o vivienda unifamiliar (tipo A) es aquélla que se sitúa en un (1) edificio único, destinado a la residencia de una única unidad familiar.

i) Se pueden distinguir en ella dos modalidades:

1) La vivienda que ocupa un (1) edificio aislado o vivienda unifamiliar aislada.

2) Como caso especial, la vivienda que ocupa un (1) edificio pareado o adosado a los linderos de las parcelas colindantes.

ii) Las viviendas admiten estas ubicaciones en su parcela:

1) En parcela independiente para cada edificio.

2) En parcela común a varios edificios constituidos en régimen de propiedad horizontal.

5. La vivienda en edificio de dos (2) viviendas o vivienda bifamiliar (tipo B) es aquélla que se sitúa en un (1) edificio único, destinado a dos (2) unidades familiares o viviendas.

Se pueden distinguir en ella dos tipos:

a) La vivienda unifamiliar (tipo B.1) es aquélla que se sitúa en un (1) edificio que se conforma mediante la agrupación horizontal de las viviendas, por lo que ninguna de las dependencias de éstas podrá coincidir en un mismo plano vertical.

El edificio tendrá forma compacta y, si estuviere integrado por varios elementos o cuerpos volumétricos, la unión de las dos (2) viviendas se realizará adosando los cuerpos principales y de mayor volumen que formarán fachada continua. La solución arquitectónica resultante de la estratagema de unir dos (2) edificios, que responden al tipo edificatorio de la vivienda unifamiliar aislada, por sus cuerpos secundarios y menores (en altura y/o anchura) nunca tendrá la consideración de vivienda unifamiliar pareada.

